



GIZA PROBA JAIA

Indarra hartzen ari da gazteen artean eta gero eta gehiago prestatzen dira probak. Neskak (Ibarra eta Ergobiako taldeak 550 kiloko harriaz) edota herriko 22 neska-mutilek osatutako taldea (3.200 kilokoaz) aritu ziren plazan, eguraldiak lagundu ez arren. Lor-tutako emaitzak honako hauek izan ziren: Ibarra taldeak 38 plaza, Ergobiak 37 plaza eta Astiarra taldeak (harri handiarekin) 18 plaza.



Ekitaldiaren bideoa ere youtuben ikus daiteke
["http://www.youtube.com/watch?v=Lh_-8Tvuzol"](http://www.youtube.com/watch?v=Lh_-8Tvuzol)

ONDOKO FAMILIA



Bizilagunak-La familia de al lado ekintzaren bidez eta igandeko bazkari berezi eta ezberdina eginez, hemengo zenbait familia eta pertsona kanpotik etorritakoekin elkartu ziren. Solidaritatea helburu eta arrazakeriaren aurkako deia eginez, gozamena izan zela diote parte hartzaileek...

SAGARDOAREN INGURUKO KULTUR LANAK

Bigarren urtez jarraian, sagardoaren kulturako arte-lanen erakusketa ikusgai izan zen Sagardoetxea Museoa eta bisita gidatuek Sagardoaren Lurraldeko artista ezberdinen artelanak ezagutzeko aukera eman zuten. Honetaz gain, Sagardoaren kulturarekin zerikusia duten produktu gastronomikoak dastatzeko aukera izan zen. Roxario jatetxeak modu ezberdinetara prestatutako sardina zaharrak eskaini zituen danbolinean erretako gaztainekin batera eta Lizeaga sagardotegiak eskainitako barriko-tean sagardo berria dastatzeko aukera izan zen.

